

«Baliteke Olanoren Batasuna lidergoaz jabetu izana»



Josu Jon Imaz

(Zumarraga, 1963).
EAJko EBBren
presidentea. Udal eta
Foru hauteskundeez,
EAJ alderdiaz nahiz bake
eta normalizazio politikoaz
mintzatu gara.
Azken gai honi eman
diogu leku handiena.
Josu Jon Imazen iritziz
“Barajasko atentatuarekin
ETAk ez dio jaramonik
egin euskal gizarteari,
baina datu berria da
Batasunari berari
ez diola kasurik egin”.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

“ETAk ez zituen armak utzi piknik batera joateko” dio Alec Reid apaiz irlandarrak apirileko azken ARGIAko azalean. Josu Jon Imazekin solasaldia hasteko unean zenbaki hori dugu mahai gainean: “Alec Reid 1998an ezagutu nuen. EA, EH eta EAJko ordezkaritza bat Lizarra-Garaziko Akordioa azaltzera joan ginen AEBetara. Eliza-rekin eta hainbat sektoreekin harremanak bideratzen lagundu zigun Alec Reidek”, diosku EBBko buruak.

Zer iritzi duzu Alec Reidek dioenaz?

Bake prozesuaren oinarria armak uztearen borondatean datza. Indarke-ria alde batera uzteko erabakia ez dago bake prozesuaren amaieran, baina prozesua hasteko ezinbesteko baldintza da borondate irmoa agertzea. Baldintza hau benetan agertu gabe ezinezkoa da bake prozesua eraikitzea.

Azter dezagun kronologikoki prozesuan gertatu uste dena. 2006ko martxoan su-eten iraunkorra adierazi zuen ETAk. Ordurako konpromisoak omen

zeuden ETA eta PSOEko Gobernuaren artean. Zure ustez hala da?

Nik ez ditut ezagutzen. Galdera hori ETARI edota Espainiako Gobernuari egin beharko litzaioke. Nik dudak informazioaren arabera ez ditut konpromisoak ezagutu ahal izan.

Batasuna eta PSOEren arteko harremanak sendoa ematen zuen. EAJk ere ontzat ematen zuen egoera.

Bai. EAJk prozesuak zituen bi atalak ontzat eman zituen: bakearena eta normalizazio politikoarena. Lehena-

Udal eta Foru hauteskundeak: "PSOE eta Batasuna jokoan ari dira"

ALDERDIEN LEGEA. PSOE eta Batasuna jokoan ari dira. Guk ez dugu Alderdien Legea onartu, eta legeak ondorio hauek ekarri ditu. Batasunak hauteskundera joateko benetako gogoia balu, erraza edukiko luke. Joko honekin jarraituko dugu maiatzaren 27ra arte. Nola bukatuko da hau guztia? Ez dakit.

ASBRI BURUZKO EBAZPENA KANPAINAN. Tamalgarria da. Maiatzaren 16a iritsiko da eta honetaz jarraituko dugu hizketan, udal eta foru aldundietarako proiektuez hitz egin beharrean, eta ni ez nago horretaz hitz egiten jarraitzeko prest.

EAE-ANVREN AURKEZTEA. Alderdi politiko bat da. Nik gustuko ez dudana Alderdien Lege barruan dago. Ez daukat beste ezer esateko. Bejondeiola.

ALDERDIEN LEGEA, BAKE PROZESUA, ETA HAUTESKUNDEAK. Ez dago hauen arteko lotura zuzenik. Bake prozesuaren giltza ETak armak uzteko borondate irmoa agertzea da, ez ezker abertzalea hauteskundeetan egotea edo ez. Gauza batzuk eskubideen arabera arautu eta erabaki behar dira, baina bake prozesuari lotu gabe. Kontua ez da ANV edo ASB aurkeztea. Bake prozesuaren giltza beste bat da.

go, 2005eko urrian, EBBko *Agiriaren* bidez prozesuaren giltza zabaltzeko bakegintzaren errailak martxan jartzea onetsi zuen, horretarako ETak indarkeriarekin amaitzeko borondate irmoa azaldu behar zuelarik. Hala, 2005eko maiatzean Espainiako Kongresuan Zapaterok ezagutarazi zuen ebazpenaren oinarria EAJk eta Alderdi Sozialistak onartu genuen.

Ebazpena errail batekikoa zen. Beste errailetik zihoazen alderdiak mahai batean esertzea zuten helburu.

Bai, baina aipatu ditudan agiria eta ebazpen horietan hartutako erabaki edo baldintzen arabera betiere. Baldintzetako bat, alde aurretik indarkeriarekin amaitzea zen, termino guztietan: txantaje eta estortsio mota guztiak desagertzea, barne.

Prozesua aurrera zihoan. Udan akordioak izan omen ziren alderdien artean. Zein akordioetara heldu zineten?

Guk alderdien artean akordio itxirik ez genuen lortu, baina aurreakordio

batzuk bai, amankomuneko akordio- en oinarriak aurreratuak zeuden.

Zein ziren aurreakordioaren puntuak?

Alderdien arteko mahaia osatzeko baldintza batzuk zeuden: egutegiak, mahaia funtzionamenduaren ingurukoak, baita mahaia aztertu izango zituen oinarri politikoak ere. Oinarriak ziren, baina itxi gabe zeuden...

Eta?

Eta bat-batean elkarrizketa horietan Batasunak bere jarrera aldatu zuen. Hilabetetan zehar defendatutako jarrera 180 graduz aldatu zuen egun batetik bestera. Guretzat onartezinak ziren baldintza batzuk jarri zituen mahai gainean.

Hala nola...

Batasunak indarkeriaren amaiera Nafarroaren bilakaeraren menpe jarri eta baldintzatu nahi zuen batez ere. Eta gure ustez horiek ezin dira ez lotu Nafarroa izango delako nafar gizarteak erabakitzen duena.

Gure jarrera puntu horretan ezaguna da, EAJren proiektuaren helburua Nafarroaren eta EAEren arteko harremana bultzatzea da, baina ezin dugu onartu inola ere proiektu horren bilakaera indarkeriaren amaierara baldintzatuta egotea, hori nafar gizarteari jarrera bat inposatzea bailitzateke.

EAEko gobernuan EAJ eta EA zaudete, EA Batasunarengandik nahiko hurbil agertu da gai horretan. Ez duzu uste?

Horri EAK erantzun beharko lioke. Ni neu ez naiz inor beste alderdien gauzetan sartzeko.

Edo EA ez al da mahaian hainbeste aldiz agertu?

Guk mahai horietan EA, EB, Aralar, Alderdi Sozialista eta Batasunarekin bildu gara, guztiekin. Mahai formalik ez da egon, elkarrizketa guztiak alderdi guztiekin burutu ditugu, PPrekin izan ezik. PPrekin saiatu izan gara, baina tamalez ez dugu lortu, jakina.

Txapelaburuan ta ibili munduan

Narrika, 18. Donostia
telf. 943428299 www.txapelaburuan.com



“Guk konpromisoa eta borondatea dauzkagu herri honen etorkizuna eta herri hau eraikitzeko akordioak guztien artean garatzeko, ezker abertzalea akordio horien barne delarik”.

Dena dela ere, ez al duzu EA ikusi hurbilago Batasunak proposatzen duen mahai bakarra –Nafarroa eta EAE lurraldeentzat– delako horretatik?

Gauza batda nahi izatea eta beste bat ahal izatea. Mahai bakarra zein esertzeko? Nafarroako gizartearen %25a ordezkatzeko duginok? Gure ustez, errealistagoa da nafarren gehiengo prozesu errealista baten aldekoa izatea. Zentzu horretan, askoz eraginkorragoa iruditzen zaigu Na-Bai proiektuaren bidez Nafarroako erakundeen eraldaketa bultzatzea eta benetako herrigintza burutzea, bidean hordagoka ibiltzea baino.

Finean, balizko alderdien mahaiak krak egin zuen osatze bidean.

Nik mahai birtuala deitzen diot, ez zuelako fisikoki islarik izan.

Prozesuaren bi errailak aipatu dituzu. Alde batek dioenez “prozesua teknika bada, ez dago prozesurik ez irteerarik”. Nik fiabardura bat sartuko nuke. Ez dut indarkeriaren amaiera negoziazio politikoaren menpe ezarriko inoiz, ez dudalako inoiz onartuko indarkeriaren mehatxupean euskal gizartearen etorkizuna definitzea.

Baina helburuetan prozesua teknika baino zerbait gehiago izango dela, bai. Zuk zeuk hori defendatu izan duzula uste dut.

EAJk bakegintza prozesuaren ondoren, normalizazio politikoaren bidean

“Ez dakit zenbat bilera egin duen Batasunak Alderdi Sozialistarekin azken hiru urteetan. Batasunak nik baino datu gehiago izango du normalizazio prozesuaz”

lehengai edota aktibo politiko batzuk mahai inguru batean jartzea beharrezkoa ikusten dut. Baina betiere, bi errail horien arteko jostera ondo zainduz, bi zatiak beharrezkoak dira, baina lotura zuzenik gabe. Anoetako Proposamenak bide horretan espazio bat baimentzen zuela ondorioztatu zuen EAJk. Beste gauza bat da prozesuaren errailak edo euren loturak ondo zaintzen ditugun.

PSOEk eta Zapaterok bide edo espazio hori barneratu al dute? Zu Zapaterorekin bildu izan zara...

Baina ni baino lehenago Arnaldo Otegiarekin eta Batasunarekin bildu da Alderdi Sozialista. Ez dakit zenbat bilera egin duen Batasunak Alderdi Sozialistarekin azken hiru urteetan. Batasunak nik baino datu gehiago izango ditu horretaz. Nik aipatu filosofia Zapaterok berak Kongresuan bakegintzari buruzko elkarrizketa irekitzearen aldarrikapenean aipatu zuen. ETArekin hitz egin beharreko markoa definitu zuen, eta bide politiko bati ere nolabaiteko bidea eman zion. Beraz, hemen alderdi guztiok, PP izan ezik, bistan da, bakegintzarako prozesu bat beharrezkoa dela defendatu dugu, baita normalizazio politikorako ere prozesu politiko bat beharrezkoa dela.



TALLERES

Mitxelena s.coop.

**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 • Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua**

Eziago poligonoa, 21 - Hernani -Gipuzkoa-

© 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

“Guk jasotzen dugun agindu bakarria herriaren agindua da”



EAJren politika eta pentsamendua *statu quo*arena omen da.

Hori ez da egia, herri honek 30 urtetan zehar eraldaketa izugarria izan duela-ko bere nortasunean, erakundetze prozesuan, marko juridiko-politikoan, ekonomia nahiz gizarte berrikuntzan. Herri honek ez du deus ikustekorik duela 30 urtekoarekin, zentzurik onenean diot. Eta hau guztion artean egin dugu noski, baina politikoki prozesuaren liderra EAJ izan da. Beraz, European ikurra den eraldaketa egin duen alderdia nola izango da *statu quo*aren isla?

EAJ Estatuak markatzen duen muga bizitzea, ertzearaino joan eta ahal bada ertz hori harago mugitzen saiatzea da *statu quo*.

Hori ez da *statu quo*arena, hori eraldaketa da.

“EAJ berdin bost puntutan egon eta hirura pasa liteke, Estatuak hori agintzen badu konformatu egingo da”. Jokin Apalategiren hitzak dira.

Guk jasotzen dugun agindu bakarria herriaren agindua da. EAJren lema printzipio politikoekin aurrera egitea da eta aldi berean zuhertasuna izatea gizar-tearen gehiengoa bide horretatik joan dadin. Printzipioetan aurrera egiteak eta –zuhertasunaz eta pragmatismoz– gehiengoa bat etor dadin ausardia politikoa izatea eskatzen du. Idealismoa eta pragmatismoa dira gure zuta-beak. Baina pragmatismoa ez zaigu etortzen Estatuaren jarrera dela medio, euskal gizartearen jarreraren eta nahiaren bitartez baizik.

Batasunak nola barneratu du prozesua zure ikuspegitik?

Ez du barneratu. Barajasko atentatua gertatu zenean “inoiz baino gehiago prozesuaren alde apustu egin behar dugu” esan zuen. Erotu egin al gara edo? Pasa zuten ez dakit zenbat hila-bete esanez prozesua hautsita zegoela eta bi pertsona hil ondoren, orduan prozesua inoiz baino irekiago dagoela? Ez dakit Batasunaren esanetan prozesuak zer esan nahi duen. Nik gauza horiek entzunda, beraien prozesuak ez du zer ikusik nik prozesuaz dudana ikuspegiarekin.

Batasunak Josu Jon Imazi egotzi dio ez duela lagundu betetzen PSOEk bete behar zituen konpromisoak.

Hori beharbada [Juan Mari] Olanoren Batasunak azken hilabetetan inposatutako jarrera da. Hori ez zen azaroa baino lehen Otegiren Batasunak defendatu zuen jarrera. Baliteke Olanoren Batasuna jabetu izana lidergo politikoaz, arazoa hori izan daiteke eta Otegiren Batasunak ez duela egoerari aurre egiteko ausardia politikorik.

Niretzat harrigarriena da prozesuan ezker abertzaleak bere parame-troak aldatu izana. Esaterako, ETA-ren abuztuko 17ko agiria irakurtzen badugu, ez da martxo 22an zioena. Hor aldaketa dago.

Bi ETA al daude edo?

Ez dakit. Niri ez zait gustatzen espe-kulazioetan sartzea daturik izan gabe. Baina, baten batek esplikatzen beharko liguke zergatik ETAk jarrera aldatu zuen 2006 urtean zehar eta zergatik Batasunak ez dion aurre egin.

Bere isatsari koska egiten dion arrai-narena gertatzen da. Bakoitzak bereari heltzen dio. Konpromisoak direla eta ez direla...

“Askoz eraginkorragoa iruditzen zaigu Na-Bai proiektuaren bidez Nafarroako erakundearen eraldaketa bultzatzea eta benetako herrigintza burutzea, bidean hordagoka ibiltzea baino”

Nik neuk entzun izan diet ezker aber-tzaleko lider batzuei, alderdien mahaian ari ginenean, lantzen ari ginen planteamendu politikoetan benetako ausardia politikoa ikusten zutela. Beraz, horiek ez datoz bat konpromiso politikoaren tesiarekin, nire ustez beste zerbait aldatu da ETAren hausnarketa-ren barruan. ETAk azaldu behar luke zergatia eta Batasunak azaldu beharko

lioke gizarteari zergatik ez duen ausar-dia politikorik izan benetako apustu politikoa egiteko, zergatik dabilen ETAren morrontzan.

Arnaldo Otegi horrela esan du berriki: “Inori begira egon gabe alderdien esku dago prozesua abiatzea”.

Bada oker dabil. Batasunak ez badu ETAr aurre egiteko ausardia politiko-rik eta ETAk ez badu indarkeria uzten, guk ez dugu herri honen etorkizuna baldintza horietan negoziatuko. Beharbada prozesu politikoa alder-dien artean egin beharko dugu, Bata-sunarik gabe. Batasunak ez badu gogoeta politikorik egiten, agian beste alderdi politikoen artean negoziatzen jarraituko dugu. Eta nik herri honen etorkizuna Batasunarekin batera egin nahi dut, baina Batasunak edo ETAk duela urtebete egin zuten hausnarketa politikoa eta borondate hori irmo agertzea beharrezkoa da. Borondate irmoa agertu ondoren, guk konpromi-soa –Batasunaren aurrean gure konpromisoa irmoa izan da– eta boronda-tea dauzkagu herri honen etorkizuna eta herri hau eraikitzeak akordioak guztien artean garatzeko, ezker aber-tzalea akordio horien barne delarik. ■

<http://www.argia.com/argia.astekaria> helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea eta bideoa.